



Usurbilgo Udala

Data: 2024/01/25

## 2024KO URTARRILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Jarduneko Alkate-Lehendakaria

Ainhoa Arrozpide Landa

#### Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Maialen Iñarra Arregi  
Xabier Otxoa Muñoz  
Ivan Iriondo Axpe  
Josune Urkola Larrarte  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

**Kontuhartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Agurtzane Solaberrieta Mesa eta Oskar Santamaria Picabea.

Usurbilen, 2024ko urtarrilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Ainhoa Arrozpide Landa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

#### **1.- 2023/12/20KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2023ko abenduaren 20ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

#### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO ABENDUAREN 11TIK 2024KO URTARRILAREN 19RA (2023/1211-2024/70).**



Usurbilgo Udala

Data: 2024/01/25

Alkatetzak 2023ko abenduaren 11tik 2024ko urtarrilaren 19ra bitartean (2023/1211-2024/70) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2024/53 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2024IDOR0001).**

Batzarkideei 2024/53 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

### **4.- KONTU EMATEA: 2023KO 4 HIRUHILEKO ORDAINKETEN BATEZBESTEKO EPEA.**

Batzarkideei 2023ko 4. hiruhileko ordainketen batezbesteko epearen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

### **5.- KONTU EMATEA: 2023KO 4 HIRUHILEKO EXEKUZIOA.**

Batzarkideei 2023ko 4. hiruhileko exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

### **6.- 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA (2023FAZE0001).**

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2024ko Lanpostuen zerrenda 2023ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran onartu zen.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikorako 11/2022 Legeak 45. artikuluan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta aldaketa proposamena 2024ko urtarrilaren 17ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2024ko urtarrilaren 17an egindako Antolakuntza Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Lau(4), EHBildu (3) eta PSE (1)
- Abstentzioa: Bat (1), EAJ(1)



Usurbilgo Udala

Data: 2024/01/25

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

LEHENENGO: 2024ko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Ainhoa Arrozpide Landa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **7.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, jarduneko alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:10ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, jarduneko alkatearen oniritziarekin.**